

Xipri Arlaellaide

APAIZA ETA IDAZLEA

Eliza lo-belarra

Berrikitan irakurtzen nuen lehenago Eliza bezala orain kirola dela herriaren lo-belarra. Marxek zuen erran: “Erlijioa herriaren opioa”. Euskal Herrian erran daiteke “lo-belarra” izan dela Eliza?

Azken hamarkadei begirada bat emanez, ikusten dugu, erregezalea zen Don Mateo Mujika apezpikuak abertzaleen alderdia hartu zuela 1936an, Espainiako apezpikuen aurka: erbesteratu zuten. Euskal Herriko 2.000 apezetarik 16 fusilatua izan ziren, 250 kanporatuak, 800 gaztigatuak. Hartu mediku, abokatu, ingeniari, enpresaburu eta beste, zein dira Eliza bezain gogorki joak izan? Apezak lo-belarraren zurrungan?

Kanbotik zuen Mujikak plazaratu 1945ean. *Imperativos de mi conciencia* garai haietan euskaldunen alde agertu dokumenturik garrantzitsuena. 1974an oso-oso gutik egin zuen, Añoveros Bilboko apezpikua ez baitzuen Francok kanporatu. Lo-belarraren zurrungatik!?

Gero, mundu osoan zabaldu gutunak izenpetu zituzten apez euskaldunek euskal arazoaz. Lehenik 100 apezek goitik Donostiako beren obispoari 1956an. 339k mundu osoari 1960an. Ondotik 1963an, Kontzilioari, 500ez goitik: hauei esker da Kontzilioko erabaketan sartu apezpikuen izendatzea ez dela estatuburuen esku izan, ordu arte Espainian bezala. 300ek



DANI BLANCO

oraino Espainiako apezpikuei 1968an. Berriz galdera bera: gizarteko zein sailetan, mediku, abokatu, ingeniari, enpresaburu eta beste, ikusi da horrelakorik? Lokartuak *Egiz* aldizkarikoak? Lokartuak Larrañaga eta Pildain apezpikuak? Lokartuak Onaindia, Azpiazu, Garde apezak horiek baizik ez izendatzeko?

Non sortu dira ikastolak ez bada elizetako geletan? Nork sortu ditu euskaraz mintzo ziren irriatiak (Loiola, Segura, Arrate) ez bada apezek? Egiten ahal zutela! Ahal izatetik eta egitera bada bide. Bide hori apezek egin dute. Ez lotarik!

Non egin ditu bere biltzar nagusiak ETak, biltzar nagusiak egiten zituelarik, ez bada apezek eskuetan ziren geletan, hala Hego, hala Iparraldean.

Badira gogoia esloganez hazten dutenak. Ez da halako lo-belarrak! Badira mundu hau haiekin hasi dela uste dutenak, ohartu ere gabe antzinagokoek ireki bideetan dabilzala. Eta hau

ez da egia bakarrik Elizarentzat.

Apez horiek, ez direla *denak!* Egia handia. Pilotan profesional bakar batzuk baizik ez dira. Zaleak behar dituzte atzetik milaka. Elizan ere milaka zalek dituzte posible egiten profesionalak.

Azken galdera bat. Eskutan daukazun ARGIA hau ez ote zuten apezek biziara 60 urtez, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarik gabe? ■

« Non sortu dira ikastolak ez bada elizetako geletan? Nork sortu ditu euskaraz mintzo ziren irriatiak ez bada apezek? Egiten ahal zutela! Ahal izatetik eta egitera bada bide. Bide hori apezek egin dute. Ez lotarik! »



Joan hartzak, erlojuak eta beste pitzia batzuk

IKUSKIZUNA

Patxi Zubizarreta (testuak)
Joserra Senperena (musika)
Thomas Canet (irudiak)

Apirilaren 6an, 20.00etan
Gasteizko Goiuri jauregian (Villa Suso)
Gasteizko Udalaren eskutik

Bila ezazu Joan hartzak, erlojuak eta beste pitzia batzuk
Facebook-en

www.txalaparta.com



txalaparta